



## **IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK**

Onarpen data edo azken aldaketaren data

## AURKIBIDEA

1.	Sarrera .....	1
2.	Esparru objektiboa eta subjektiboa.....	2
3.	Planaren garapena.....	2
3.1	Prebentzio neurriak .....	2
3.1.1	Erakundearen Zuzentasun Sistema .....	3
3.1.2	Iruzur arriskuaren autoebaluazioak .....	8
3.1.3	Kudeaketa, kontrol eta ordainketa jarduketak bereiztea .....	9
3.1.4	Finantzaketa bikoitza .....	9
3.1.5	Datuen analisisa .....	9
3.2	Detekzio neurriak.....	9
3.2.1	Bandera gorriak .....	10
3.2.2	Salaketa kanala .....	10
3.2.3	Datuak gurutzatzea .....	11
3.3	Zuzentzeko neurriak.....	11
3.4	Jazarpen neurriak.....	12
3.4.1	Komunikatzea eta salatzea.....	12
3.4.2	Funtsak berreskuratzea .....	13
4.	Iruzurra Prebenitzeko Batzordea .....	13
5.	Jarraipena .....	14
6.	Publizitatea .....	14
7.	Eranskinak .....	15
1.	eranskina. Interes gatazkak komunikatzea eta haiekin loturiko prozedura .....	15
2.	eranskina. Interes gatazkak prebenitzeko prozedurak aztertzea eta ezartzea ..	15
•	Kontratazio espedienteak.....	15
•	Dirulaguntzen espedienteak .....	15
•	Bitarteko propioen enkarguak, kudeaketa mandatuak eta hitzarmenak.....	15
3.	eranskina. DACI ereduak.....	15
•	1. EREDUA. DACI OROKORRA.....	15
•	2. EREDUA. DACI MINERVA.....	15
•	3. EREDUA. DACI BERRETSI.....	15
•	4. EREDUA. DACI OPERADORE EKONOMIKOAK .....	15



4. eranskina. Bandera gorriak eta egiaztapen eredua.....	15
• Kontratazio espedienteak.....	15
• Dirulaguntzak emateko espedienteak .....	15
• Bitarteko propioei egindako enkargu espedienteak .....	15
• Hitzarmen espedienteak.....	15
8. Aldaketak .....	15

## 1. Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) esparru juridiko instituzionala eta gobernantza esparrua osatzen dute, batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, eta, bestetik, Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Arauak. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen Europako funtsen arloan, aplikatzekoa da funts horiek hobeto inplementatzeko gobernantza egituraren esparru orokorra arautzen duen 54/2024 Foru Dekretua.

4/2019 Foru Arauaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakundearen Zuzentasun Sistema bat dauka zehaztuta, helburu hauekin:

a) Arduradunek, enplegatu publikoek, zerbitzu publikoen horniduran parte hartzen dutenek eta, oro har, Foru Aldundiarekin eta haren sektore publikoko erakundeekin harremana dutenek funtzio publikoetan zuzentasun kultura garatzea eta sustatzea beren eginkizunak betetzeari begira.

b) Erakundearen irudiari kalte egin diezaioketen jardunbide txarrak edo jokabide desegokiak prebenitzea.

Bestalde, iruzurrari dagokionez, Europar Batasuneko legediak horri buruzko zenbait xedapen jasotzen ditu. Zehazki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 310. eta 325. artikuluetan ezartzen duenez, Batasunaren aurrekontua finantza kudeaketa onaren printzipioaren arabera egikaritu behar da, eta estatu kideek, EBrekin batera, aurre egin behar diete iruzurrari eta EBren finantza interesei kalte egiten dien legez kanpoko beste ezein jarduerari. Gainera, ezartzen du horri buruzko neurriak hartu behar dituztela. Bestalde, 2018ko Finantza Erregelamenduak ere jasotzen ditu lehen aipatutako bi alderdi horiek. Horretaz gainera, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak hartzea azpimarratzen du, baita interes gatazkak prebenitzekoak ere.

Europako funtsen esparruan eta EGEF funtsaren kasu zehatzean, 2014-2020 aldirako jada aplikatu ziren iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak, Europar Batasunaren finantza interesak babesteari begira.

Esparru horretan, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduak 22. artikuluan jasotzen duenez, estatu kideak beharturik daude neurri egokiak hartzera Europar Batasunaren finantza interesak babesteko, eta, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes gatazka prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez.

Agindu hori garatzeko, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalaren kudeaketa sistema konfiguratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak 6.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko neurriak betearazten parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du.

Agindu hori betez, eta ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko funtsak egikaritzen dituela, Foru Diputatuen Kontseiluak

Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onetsi zuen 2021eko abenduaren 28an, Europar Batasunak kofinantzatutako Gipuzkoako Foru Administrazioaren eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeen proiektuetarako.

Plan hartan adierazten denez, EGEFen ezarritako arriskuak eta iruzurraren aurkako neurriak ebaluatzeko mekanismoak edo etorkizunean ezarriko diren hobekuntzak aplikatzekoak izango zaizkie Europako beste funts batzuekin finantzatutako proiektuei ere, eta haien eskakizunetara egokitu beharko dira.

Foru Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren hirugarren apartatuan Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari emandako ahalmenaren indarrez, jarraibide hauek ematen dira aipatutako plana behar bezala aplikatzeko eta garatzeko.

## 2. Esparru objektiboa eta subjektiboa

### Esparru objektiboa

Aplikazio eremuan sartuko dira Europako funtsek osorik zein partzialki finantzatutako espedienteak, hala nola kontratuak, dirulaguntzak edo lege ezarritako bestelako tresnak. Hala ere, neurrien intentsitatea arau espezifiko hauen arabera izango da: HPF/1030/2021 Agindua, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren kasuan; programek eskatzen dituztenak, kudeaketa partekatuko funtsetan; edo deialdien arauak, kudeaketa zuzeneko funtsetan.

Neurri horien xedea izango da irregulartasunak, interes gatazkak, iruzurra eta ustelkeria prebenitzea, detektatzea, zuzentzea eta jazartzea.

### Esparru subjektiboa

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta foru sektore publikoko gainerako erakundeei aplikatuko zaizkie plana eta haren garapena.

## 3. Planaren garapena

Neurri egokiak, proportzionatuak eta egituratuak artikulatzen dira iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementu hauen inguruan: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena. Etapa guztiak dira garrantzitsuak, horietako bakoitzean hartutako neurriak betetzeak bermatzen baitu neurri guztien babes sistematikoa eta eraginkortasun globala.

### 3.1 Prebentzio neurriak

Lehen etapa hori oso garrantzitsua da, jokabide desegokiak eta iruzurra eragin dezaketen ekintzak prebenitzea baitu helburu. Bestela esanda, kaltea gertatu aurretik jardutea da kontua. Horretarako, ezinbestekoa da arrisku eremuak eta portaerak identifikatzea, eta beharrezkoa da, orobat, horiei aurre egiteko eta arrisku horiek gauzatzea saihesteko lehen neurriak hartzea.

### 3.1.1 Erakundearen Zuzentasun Sistema

Etengabe ari dira garatzen zuzentasun edo etika publikoak baliatzen dituen tresnak, prozedurak eta baliabideak, eta, horregatik, ezinbestekoa da une bakoitzeko behar eta egoera sozial berrietara egokitzea. Autorregulazio kodeak tresna ezin hobekak dira etikari dagokionez erakunde kultura aldatzeko, baina horiek, berez, ez dute eraginkortasunik, ez badoaz Erakundearen Zuzentasun Sistema oso bat osatzen duten gainerako neurriekin batera. Sistema horrek, oinarrizko dokumentuez aparte, jaso beharko ditu prebentzio eta prestakuntza mekanismoak, kontsulta eta salaketa bideak, monitorizazioa eta haren ebaluazioa ere. Elementu horiek guztiek benetako Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen dute, eta, gainera, politika publiko orok jarraitu beharreko etengabeko hobekuntzaren zirkulua ixten dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemak —Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean eginiko bilkuran onetsi zuen— jarduera publiko arduratsu baten isla izan nahi du. Hori horrela, kargudun eta enplegatu publikoen jokabide publiko ukiezina izan nahi du abiapuntu, eta zerbitzu publikoak ematen parte hartzen duten edo foru administrazioarekin harremana duten erakundeetara ere hedatzen da. Horretarako, Gobernantza Etikoko ingurune bat sortzen da, foru erakundeak herritarren aurrean legitimatzeko.

Helburu hori lortzeko, sistemak azpiegitura etiko bat sortzearen alde egiten du, balioak eta printzipioak barneratzeko testuinguru bat sortzeko, eta elementu hauen inguruan egituratzen da: kodeak, berme organoa, kontsulta eta salaketetarako bideak, prestakuntza eta sistemaren ebaluazioa.

Erakundearen Zuzentasun Sistema tresna bizia da, une bakoitzeko errealitatera egokitu beharrekoa, eta, horregatik, Erakundearen Etika Batzordeak urtero proposatzen ditu hobekuntzak Sistemarako.

#### *3.1.1.1 Etika eta Jokabide Kodeak*

Europako Batzordeak, Interes gatazkako egoerak saihesteko eta kudeatzeko orientabideei buruzko Komunikazioan (2021/C 121/01), garrantzi handia ematen dio etika edo jokabide kode bat edo laneko beste edozein politika eta prozedura aplikatzeari, eta, bereziki, erakundeko interes gatazken kudeaketa arautzen duten arauak aplikatzeari.

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari dagokionez, HFP/1030/2021 Aginduak Jokabide Kodeak aurreikusten ditu prebentzio fasearen tresna nagusi gisa, eta, ildo beretik, Jokabide Kodeak, autorregulazio tresnak diren aldetik, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren oinarrizko tresna dira. Kodeon bidez, identifikaturik geratzen dira Foru Administrazioan eta haren foru sektore publikoan zuzenean edo zeharka funtzio publikoak betetzen dituzten, foru sektore publikoarekin kontratuak formalizatzen dituzten, sektore horren laguntzak jasotzen dituzten eta, oro har, sektore publikoarekin harremana duten pertsona guztiek bete beharreko jokabideak, bai eta jarduera balio, printzipio eta arauak ere. Hori horrela, kode horien helburua da jokabide etikoa eta morala sustatzea eta askotariko egoeretan zuzentzat edo okertzat jotzen denari buruzko orientazioa ematea, eta, ildo horretan, lagungarriak dira gizartean errespetua, zuzentasuna eta erantzukizuna sustatzen dituzten jokabide estandarrak ezartzeko.

Sistema horren esparruan, hainbat Etika eta Jokabide Kode onetsi dira hurrenez hurren, eta, gaur egun, Zuzentasun Sistemak sei eremutan jarduten du:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (DKE 2016/03/1).
- Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (DKE 2017/11/7).
- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DKE 2017/09/5).
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (DKE 2018/10/2).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoarekin elkarrengaitan duten interes taldeei aplikatu beharreko Jokabide kodea (12/2022 Foru Dekretua, irailaren 13koa).
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Datuak eta Adimen Artifiziala erabiltzeko kode etikoa (DKE 2023/01/10).

Esteka honetan aurki daiteke horiei buruzko informazio guztia: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun/jokabide-kodeak>.

Kontuan izanik Europako funtsak inbertsio handia direla finantza baliabidetan, jokabide kodeak funtsezkoak dira baliabide horien erabilera arduratsua eta efizientea ziurtatzeko, hala lortuko baita gizartean duten inpaktu positiboa maximizatzea eta bidegabeko erabilera edo ustelkeria arriskuak minimizatzea. Gainera, funtsezkoa da gogoratzea Europako funtsen arrakasta, neurri handi batean, herritarren konfiantzaren mende dagoela. Hori hala den heinean, jokabide kodeek konfiantza hori eraikitzen laguntzen dute, zuzentasunarekiko, gardentasunarekiko eta erantzukizunarekiko konpromiso argia erakusten baitute proiektuak finantzatzeko eta gauzatzeko prozesuaren etapa guztietan. Erakundearen Zuzentasun Sistemak ezartzen duenez, Erakundearen Etika Batzordea izango da sistema hori betearazteko berme handiena eskainiko duen organoa. Martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortu zen organo independente gisa, Foru Administrazioako eta sektore publikoko gainerako erakundeetako kargu publikodunen eta antzeko langileen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean araututakoa bultzatzeko, sustatzeko eta betetzen dela zaintzeko, bai eta erakundearen irudiari kalte egin diezaiokkeen edozein ez-betetze edo jokabide txar prebenitzeko ere. Ondoren, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez, zabaldtu egin zen batzordearen xedea, haren jarduera sistemaren parte diren jokabide kode guztietara hedatu baitzen, eta, horrekin batera, onetsitako kode etikoen eta jokabide kodeen aplikazio eremuaren xede diren pertsonekin zerikusia duten gai guztietara.

2022an, maiatzaren 3ko 10/2022 Foru Dekretua onetsi zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Erakundearen Etika Batzordearen antolaketa, prozedura eta funtzionamendurako arauak ezartzen dituena. Eta, aurreko foru dekretua aldatzen duen 57/2023 Foru Dekretuaren bidez, foru sektore publikoan arau-hauste arauematei eta salatzaileak babesteari buruzko informazioa emateko barne sistema gisa jardungo du, eta hura izango da bidea haren bidez ezarritako arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria izan daitezkeen foru sektore publikoko erakunde

eta antolakundeen barruan izandako egiteei edo ez-egiteei buruzko informazioa emateko, bai eta Europar Batasuneko Zuzenbideko arau-hauste larria izan daitezkeen gaineko informazioa emateko ere, otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintzak betez gero.

### *3.1.1.2 Prestakuntza eta kontzientziazioa*

Europako funtsen kudeaketan parte hartzen duten langileen eta, oro har, langile guztien etengabeko eguneratzeak eta profesionalizazioak hobetu egiten du haien eraginkortasuna, eta, horretaz gainera, indartu egiten du prozesu horien zuzentasuna. Erakundearen Zuzentasun Sistema ezagutzeak aukera emango die langileei funtsezko balio eta printzipio etikoak ulertzeko eta baliabide ekonomikoen kudeaketaren testuinguru espezifikoan aplikatzeko. Horrek gaitasuna emango die sortzen direnean zuzentasun arazoak identifikatzeko eta behar bezala kudeatzeko. Beraz, funtsezkoa da informazio eta ezagutza hori etengabe transmititzea, askotariko kanalak eta formatuak baliatuz, ulertzen eta aplikatzen dela ziurtatzeko.

Prestakuntza eta kontzientziazioa jarduera ildo hauen arabera antolatuko dira nagusiki:

- Prestakuntza programak: Foru Aldundiak, Erakundearen Etika Batzordeak proposatuta, zabalkunde eta prebentzio neurrien urteko programa bat egingo du, foru administrazioaren eta foru sektore publikoko erakundeen azpiegitura etikoa indartzeko. Horretarako, Erakundearen Etika Batzordeak prestakuntza eta trebakuntza programazio bat proposatuko du etika publikoari eta administrazio onari buruzko alderdiak garatzeko. Horren helburua izango da alderdi horiek barneratzea, arrisku etiko ohikoak identifikatzea eta jardunbide egokiak garatzea.
- Ekintza horien artean, ezinbestekoa izango da Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko nahitaezko prestakuntza plan bat edukitzea, hautaketa prozesu bidez sartzen diren langileentzat eta kargu publikoentzat. Gainera, urteko etengabeko prestakuntza programetan sartuko dira gai horiek.
- Hedapen sistemak: hainbat hedapen sistema ezarriko dira, barne komunikazioaren bidez eta paperezko edo bitarteko elektronikoen bidez, baita sare sozialen bidez ere. Barne kanalen esparruan, langileen intranetean jasoko da Erakundearen Zuzentasun Sistemaren eduki osoa eta Erakundearen Etika Batzordeari buruzko informazio guztia.

Etika eta Jokabide Kodeak eta gainerako informazioa errazago ulertzeko, gai horiek errazago barneratzeko materialak eta tresnak prestatuko dira aldian-aldian. Ildo horretan, material horiek errazak, ulerterrazak eta hainbat euskarri eta baliabideren bidez eskuratzeko modukoak izaten saiatu beharko da.

### *3.1.1.3 Adierazpen instituzionala*

Administrazio publikoaren arduradun nagusien lidergo etikoa funtsezkoa da iruzurrari aurre egiteko. Giro etikoa administrazio publikoaren maila gorenetan sortu behar da. Horrek esan nahi du lider horiek zuzentasun eta koherentzia eredu gisa jarduten dutela, eta bat datozela haien hitzak eta ekintzak. Adibide horrek konfiantza sortzen du, eta praktika etiko eta gardenei jarraitzeko motibazioa eragiten die gainerako langileei. Ildo horretan, Foru Diputatuen Kontseiluak iruzurraren aurkako adierazpen instituzional bat onetsi zuen 2021eko abenduaren 28an (akordio haren II. eranskina).

Han jasotako informazioa langileen artean zabalduko da, dela intranetean argitaratuta, dela GFAko langileei mezu elektronikoko bat bidalita argitalpen horren berri emanez, argitalpena eskuratzeko dagokion esteka sartuz.

#### 3.1.1.4 *Interes gatazka*

##### Inguruabarra

Interes publiko eta pribatuen balizko gatazkek eragina izan dezakete erabakiak hartzeko inpartzialtasunean, eta gatazka horiek identifikatzeko eta kudeatzeko mekanismorik ez izateak areagotu egin dezake prozedura horien ahultasuna.

Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduaren (EB, Euratom) 61. artikulua ezartzen duenez, interes gatazkatzat hartuko da, baldin eta aurrekontua gauzatzeko zereginetan —zuzenean, zeharka eta modu partekatuan— eta kudeaketan —prestaketa egintzetan, auditoretzan edo kontrolean barne— parte hartzen duten finantza eragileek eta gainerako pertsonak beren eginkizunen erabilera inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute, arrazoi familiarak, afektiboak, kidesun politiko edo nazionalakoak edo interes ekonomikoak direla eta, edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arazoirengatik.

Hauek dira interes gatazkaren batean inplikaturik egon daitezkeen eragileak:

- Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietakoren bat eskuordetu zaien beste agente batzuk.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete —baina Europar Batasunaren finantza interesen aurka—, interes gatazkaren baten esparruan.

Interes gatazka eragingo lukeen egoeraren arabera, tankera honetakoak bereiz daitezke:

- Ageriko interes gatazka: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezakete haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dago lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren portaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo ez du alderdi horietan eraginik).
- Balizko interes gatazka: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek interes gatazka sor dezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- Benetako interes gatazka: enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka, edo enplegatu publiko baten interes pertsonalek eragin bidegabekoa izatea bere betebeharrak edo erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke laguntza funtsak eskatu zituenean hartutako betebeharrak eragin desegokia izan badezakete bere interes pribatuek.

Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduak jasotzen duenez, estatu kideak beharturik daude neurri egokiak aplikatzera Europar Batasunaren finantza interesak babesteko; era berean, neurri egokiak hartu beharko dituzte, orobat, ziurtatzeko funtsen erabilera, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzeko neurriei dagokionez, bat datorrela Europar Batasuneko eta estatuko Zuzenbidearekin, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokionez.

Bestalde, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 6. artikulua iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko mekanismoak indartzeari ekiten dio. Hala, ezartzen du nahitaezkoa dela interes gatazkei heltzeko prozedura bat izatea, eta beharrezkoa dela, orobat, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (DACI) betetzea Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren prozeduretan.

Era berean, 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriak interes gatazken arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatuaren prozedura arautzen du Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan. Hala, "data mining" erreminta informatiko bat baliatzen du oinarri gisa, zeinak Espainiako Zerga Administrazioaren Estatu Agentzian baitu egoitza. Bereziki, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeari lotutako kontratuak esleitzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduretan egingo da azterketa hori.

Erakundearen Zuzentasunaren ikuspegitik, estatuko eta nazioarteko araudiek ezartzen dutena alde batera utzita, interes gatazkak praktika etiko egokiekin ere prebenitu daitezke. Interes gatazka bat izatea berez ez da arazo bat; aitzitik, gatazka horiek ez identifikatzea da arazoa, behar bezala ez kudeatzea. Horregatik, ezinbestekoa da beharrezko neurriak hartzea gatazka horiek behar bezala prebenitzeko, identifikatzeko eta kudeatzeko. Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren esparruan, besteak beste Jokabide Kodeetan jarduteko prozedurak ezartzen dira, interes gatazka bat sorraraz dezaketen egoerak agertzen direnean. Hartutako neurrien artean, nabarmentzekoa da kontratazio mahaietako eta balorazio batzordeetako kideen artean prozedura edo protokolo bat ezartzea, erregistratzeko ez dagoela interes gatazkarik, ez ikuspegi juridikotik, ez ikuspegi etikotik.

#### Interes gatazkak prebenitzearekin lotutako neurriak

Hauek dira interes-gatazkei aurrea hartzeko tresnak:

- a) Erakundeko langileei interes gatazken modalitatei eta horiei heltzeko moduei buruzko komunikazioa eta informazioa ematea.

1. eranskinean jasotzen da balizko interes gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta kudeatzeari buruzko informazioa. Bertan, interes gatazken modalitatei, saihesteko moduei eta jarraitu beharrekiko prozedurari buruzko informazioa ematen zaie langileei. Agiri hori intransparen argitaratuko da, eta posta elektronikoz ere emango zaie erakundeko langile guztiei haren berri, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileen artean zabaltzeko.

b) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenak (DAClak) betetzea.

Kontratazio prozeduretan, dirulaguntzak emateko prozeduretan, bitarteko propioen enkarguetan, kudeaketa mandatueta eta hitzarmenetan parte hartzen duten pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenak bete beharko dituzte, 2. eranskinean (Interes gatazkak prebenitzeko prozedurak aztertzea eta ezartzea) eta 3. eranskinean (DACI ereduak) jasotzen diren zehaztapenen arabera.

c) Informazioa egiaztatzea. Horretarako, merkataritza erregistroen datu baseak, erakunde nazionalen eta EBko erakundeen datu baseak, enplegatuen espedienteak (datuen babesa kontuan hartuta) edo datuak aztertzeko tresnak (“data mining”) baliatuko dira.

d) “Bandera gorrien” sistema erabiltzea. Sistema horretan, interes gatazka eragiten duten egoerak detektatzeko adierazleak jasotzen dira.

e) Dagokion barne araudia zorrotz aplikatzea (estatuko, autonomia erkidegoko edo toki araudia), eta, bereziki, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua (printzipio etikoei buruzkoa), Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua (abstentzioari buruzkoa) eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea.

Interes gatazkak kudeatzearekin lotutako neurriak

Neurri hauek ezartzen dira balizko interes gatazkei heltzeko:

a) Erakundearen Zuzentasun Sisteman aurreikusitako baldintzetan interes gatazka bat izan dezaketela uste duten langileek kontsulta egingo diote Erakundearen Etika Batzordeari, eta hark erabakiko du gatazka hori benetan gertatzen den ala ez. Gaia ebatzi bitartean, ez du parte hartu beharko zuzenean edo zeharka dena delako prozedura horretan.

b) Era berean, interes gatazkako balizko egoeraren berri emango dio hierarkian gorago dagoen pertsonari, eta hark idatziz berretsiko du gatazka hori gertatzen den ala ez, Batzordeak gomendatzen duena oinarri hartuta. Interes gatazka bat ageri dela irizten zaionean, izendapenak egiteko eskumena duen agintariak bereziki zainduko du pertsona horrek bertan behera uzten duela gai horrekin loturiko jarduera oro. Era berean, beste edozein neurri gehigarri hartu ahal izango du, aplikatzekoa den zuzenbidearekin bat etorritik.

c) Zorrotz aplikatzea dagokion barne araudia (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa), bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua, errekusatzeari buruzkoa, eta Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua.

### 3.1.2 Iruzur arriskuaren autoebaluazioak

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldian-aldian autoebaluatuko ditu iruzurra izateko arriskua, arrisku horren inpaktua eta gertatzeko probabilitatea Europako funtsekin finantzatutako jarduerak egikaritzeko oinarrizko prozesuetan, betiere Europako Batzordeak (DG Regio)

iruzur arriskua ebaluatzeari eta iruzurraren aurkako neurri eraginkor eta proportzionatuei buruzko dokumentuan (EGESIF\_14-0021-00, 2014ko ekainaren 16koa) zehaztutako metodologiari jarraikiz.

Autoebaluazio horiek 4. apartatuan jasotako Iruzurra Prebenitzeko Batzordeak egingo ditu. Autoebaluazio eredu estandarrak dira, eta organo kudeatzaileek egokitu egin beharko dituzte beren kudeaketa eta antolaketa sistemetara.

Ebaluazio horien aurrekari gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiak jada eginak ditu Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboan kofinantzatutako proiektuetan.

Ebaluazio horren emaitzaren arabera, urtero egingo da berrikuspina (ebaluaziotik ondorioztatutako arriskua ertaina edo handia bada) edo bi urtean behin (arriskua txikia bada). Nolanahi ere, beste ebaluazio bat egingo da iruzur kasuren bat hautematen bada edo prozeduretan edo pertsonalean aldaketa nabarmenak gertatzen badira.

### 3.1.3 Kudeaketa, kontrol eta ordainketa jarduketak bereiztea

Garbi bereizten dira kudeaketa, kontrol eta ordainketa jarduerak. Hori horrela, funtzionalki eta organikoki independenteak dira proiektuak gauzatzen dituzten organoak, kontu-hartzailertzan jarduten dutenak eta diruzaintzan aritzen direnak.

### 3.1.4 Finantzaketa bikoitza

Finantzaketa bikoitzik ez dela izango ziurtatzeko, jarduera hauek egingo dira:

- Organo kudeatzaileak proiektuen finantzaketa iturriak identifikatuko ditu.
- Onuradunei erantzukizunpeko adierazpenak eskatuko zaizkie.

### 3.1.5 Datuen analisisa

Datuak babesteari buruzko legeriak ezarritako mugen barruan, datuak lortzeko, biltegitratzeko eta aztertzeko prozesuak optimizatzen dituzten tresnak erabiltzea sustatuko da, arriskuak ebaluatzeko, datuak sektoreko beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin gurutzatzeko eta funtsak eman aurretik ere arrisku handiko egoerak detektatzeko. Horretarako, askotariko tresnak erabili ahal izango dira, hala nola kontratazio publikoko plataforma, dirulaguntzen datu baseak, datuak aztertzeko tresnak ("data mining").

## 3.2 Detekzio neurriak

Prebentzioa eraginkorra izan ez denean eta arriskuren bat gauzatu denean, funtsezkoa da azkar detektatzea, ondorioak arintzeko. Horretarako, ezinbestekoa da barneko kontrol eta prozedura egokiak eta eraginkorrak izatea, ezarritako arauen edozein desbideratze behar bezala identifikatzen dela bermatzeko. Prebentzio elementuen konbinazioak kontrol ingurune sendo bat sortzen du, eta, irregulartasunak azkar detektatzeaz gainera, balizko jokabide bidegabeak aldentzeko neurri gisa ere jarduten du. Hori horrela, indartu egiten dira zuzentasuna eta gardentasuna erakundearen barruan, eta, hala, babestu egiten dira finantza baliabideak eta herritarren eta alderdi interesdunen konfiantza.

### 3.2.1 Bandera gorriak

Iruzurra antzemateko, bandera gorrien sistema erabiliko da; hau da, iruzur jarduera bat gertatzen ari dela ohartarazteko adierazle multzo bat. Hartara, bandera gorri gisa definitutako egoeraren bat detektatzen bada, azterketa sakonago bat egingo da, iruzur egoera baten aurrean ote gauden ala ez argitzeko.

Bandera gorriak balizko iruzur baten zantzuak dira, edo alarma seinaleak edo pistak. Bandera gorri bat agertzeak ez du esan nahi nahitaez iruzurra gertatzen denik, baina adierazten du jarduera eremu jakin batek aparteko arreta behar duela iruzur potentzial bat baztertzeko edo berresteko.

Sistema horrek 2014-2020 aldirako EGEFen duen esperientzia kontuan hartuta, 4. eranskinean bandera gorrien katalogo berri bat ezartzen da, bai eta horiek egiaztatzeko eredia ere, iruzurrik ba ote den ala ez zehazteko.

Honela egingo da zerrenda betetzeko prozedura, bai eta iruzurtzat edo ustelkeriatzat har daitekeen jokabide baten zantzuen kasuetarako prozedura ere:

- Espediente bakoitzean bandera gorrien zerrenda sartu beharko da, izapidetze faseetan betetzen joan ahala.

- Bandera gorriak detektatzen badira, jakinaren gainean jarriko da administrazio prozeduraren ardura duen administrazio organoaren titularra.

- Administrazio prozeduraren ardura duen administrazio organoaren titularrak balioesten badu bandera gorriak antzemandako jokabidea har daitekeela iruzurtzat edo ustelkeriatzat, neurri hauek hartu beharko ditu:

1. Iruzur edo ustelkeria horren ebidentzia izan daitekeen dokumentazio guztia biltzea.
2. Prozedura berehala etetea eta, kasuak eskatzen duenean, hirugarrenei egin beharreko ordainketak etetea edo bertan behera uztea —eta, ahal dela, prozedura erregulatzen duen araudiari jarraikiz—.
3. Gertatutakoak deskribatzen dituen txostena egitea.
4. Gai hori 4. apartatuan jasotako Iruzurra Prebenitzeko Batzordeari helaraztea, txosten batekin eta dokumentu bidezko ebidentziarekin batera, iruzurrik edo ustelkeriarik egon ote daitekeen baloratzeko.
5. Prozedura arautzen duen araudiari jarraikiz, iruzurra edo ustelkeria saihesteko hartu beharreko edo har daitezkeen neurriak hartzea.

Iruzurra Prebenitzeko Batzordeak modu objektiboan ebaluatuko du iruzurra edo ustelkeria ager daitekeen, eta Iruzurraren aurkako Neurrien Planaren arabera egin beharreko jarduketak proposatuko ditu. Kasuaren arabera, Erakundearen Etika Batzordearen iritzia jaso ahal izango du.

### 3.2.2 Salaketa kanala.

Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzeko otsailaren 20ko 2/2023 Legeak ezartzen du, besteak beste,

nahitaezkoa dela barneko informazio kanal bat izatea, legean aurreikusitako baldintzetan.

Ildo horretan, abenduaren 19ko 57/2023 Foru Dekretuak ezartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordea —hau da, foru sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema bermatzeko organo independentea— dela foru sektore publikoaren iruzur arriskuak jakinarazteko barne sistema. Hala, foru sektore publikoan arau-hausteei buruzko informazioa emateko eta salatzaileak babesteko barne sistema gisa jardungo du, eta hura izango da bidea haren bidez ezarritako arau-hauste penal edo administratibo larria edo oso larria izan daitezkeen foru sektore publikoko erakunde eta antolakundeen barruan izandako egiteei edo ez-egiteei buruzko informazioa emateko, bai eta Europar Batasuneko Zuzenbideko arau-hauste larria izan daitezkeenen gaineko informazioa emateko ere, otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako baldintzak betez gero, bai eta Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin zerikusia duen guztirako ere.

Gainera, badira beste barne mekanismo batzuk ere, eta iruzur susmoak detektatu dituztenek haien bidez jakinaraz ditzakete. Zehazki, kanal hauek balia daitezke salaketak aurkezteko:

Erakundearen Etika Batzordea:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

GERTUBIDE:

<https://>

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/DMDSarbideZabalduaWEB/cambialdioma.do?idioma=E> (iruzur fiskala)

SNCA:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx>

OLAF:

[https://ec.europa.eu/anti-fraud/olaf-and-you/report-fraud\\_es](https://ec.europa.eu/anti-fraud/olaf-and-you/report-fraud_es)

### 3.2.3 Datuak gurutzatzea

Zenbait tresna erabili ahal izango dira, hala nola kontratazio publikoko plataforma, dirulaguntzen datu baseak, merkataritza erregistroen datu baseak, organismo nazionalak eta EBkoak, enplegatuen espedienteak (datuak babesteko arauak kontuan hartuta).

## 3.3 Zuzentzeko neurriak

Hainbat arrazoi direla eta, funtsezkoa da baliabide ekonomikoen kudeaketan irregulartasunak goiz detektatzea (Europako funtsetan, esaterako). Desbideratzeak azkar identifikatzeak arazoak larriagotu baino lehen zuzentzeko aukera ematen du, eta, horretaz gainera, lagundu egiten du kalteak minimizatzen eta desbideratutako funtsak

modu eraginkorren berreskuratzen. Azkar erantzuteko gaitasun hori funtsezkoa da finantzaketa prozesuaren zuzentasunari eusteko eta baliabideak modu efizientean eta aurreikusitako helburuarekin erabiliko direla ziurtatzeko. Iruzur posibleren bat hautemanenez gero, edo iruzur horren susmo arrazoiturik izanez gero, berehala etengo da prozedura, ahalik eta lasterren ipiniko dira jakinaren gainean agintari interesdunak eta jarduketak egiten parte hartzen duten erakundeak, eta berrikusi egingo dira prozeduraren eraginpean egon daitezkeen proiektu guztiak. Horri esker, hauxe lortuko dugu:

- Iruzurraren eragina ebaluatzea eta Iruzurra Prebenitzeko Batzordeak sistemikotzat edo puntualtzat jotzea.
- Iruzurrak eragindako eta Europar Batasunak finantzaturiko edo finantzatu beharreko proiektuak edo horien zatiak erretiratzea.
- Egiaztapen eta kontrol neurri zuzentzaile gehigarriak abian jartzea, atzemandako iruzur arrisku berriari aurre egiteko.

### 3.4 Jazarpen neurriak

Zikloaren aurreko faseetan ezarritako prebentzio eta kontrol neurriak eraginkorrak izan ez direnean eta iruzurrezko jokabideak gauzatu direnean, nahitaezkoa da ekintza erabakigarriak egikaritzea erantzuleak jazartzeko. Ikuspegi horren bidez, egindako irregulartasunak zuzentzeaz gain, erakundearen barruan eta kolaboratzaileen artean zuzentasun eta erantzukizun kultura indartuko duen aurrekari bat ezarri nahi da. Horretarako, ikerketa sakona eta legezko ekintzen implementazioa ez ezik, beharrezkoa da barne zehapenak ezartzea, kontrolak berrikustea eta komunikazio gardena izatea alderdi interesdunekin.

Iruzurren bat antzemanenez gero, prozedura hau aplikatuko da:

#### 3.4.1 Komunikatzea eta salatzea

Antzemandako iruzurraren izaera kontuan hartuta, ahalik eta lasterren hartuko dira neurri hauek:

- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari gertaeren berri ematea, erantzukizunak argitu ditzan eta, kasuak hala eskatzen badu, dagokion diziplina espedientea has dezan.
- Jakinaren gainean ipintzea Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta/edo Eusko Jaurlaritza –eta, kasuak hala eskatzen duenean, dagokion ministerioa eta Europako Batzordea–, kasuaren berri eman diezaioten IGAEri eta OLAFi, egoki iritziz gero.
- Gertakariak salatzea Fiskaltzaren eta auzitegi eskudunen aurrean, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak egoki irizten dionean, gainerako agintari interesdunekin eta inplikaturiko erakundeekin koordinatuta.

### 3.4.2 Funtsak berreskuratzea

Iruzurra gertatu dela egiaztatzen denean, iruzurrez erabilitako funtsak berreskuratzeko prozedurari ekingo zaio, aplikatu beharreko araudiak gaitzen dituen prozedurekin bat etorritz.

## 4. Iruzurra Prebenitzeko Batzordea

Europako Funtsen Zuzendaritza Nagusiak, 2024ko maiatzaren 7an, Euskadiko 2021-2027 EGEF Programaren Bitarteko Erakunde izendatu du Gipuzkoako Foru Aldundia. Foru Aldundiak izendapen horren ondorioz bere gain hartutako eginkizunen artean ageri da iruzurraren aurkako neurriak aplikatzea. Esate baterako:

- Iruzur arriskua ebaluatzeko sistema bat aplikatzea.
- Kudeaketa Agintaritzak iruzur arriskua ebaluatzeko egiten dituen autoebaluazioen hedapena eta aplikazioa onestea.
- Iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak aplikatzen direla ziurtatzea, antzemandako arriskuak kontuan hartuta.

Aurreko programazio aldian (EGEF 2014-2020) ere bitarteko erakunde izendatu zuten Gipuzkoako Foru Aldundia. Hala, arriskua autoebaluatzeko sistema bat aplikatu zuen eta iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak eta proportzionatuak hartu zituen. Zeregin horretarako, lantalde espezifiko bat eratu zen, Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak —aholkularitza tekniko baten laguntzarekin—, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eta EGEFen sartutako eragiketen organo kudeatzaileek osaturik.

Inguruabar horretan, eta Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan iruzurraren aurkako neurriei buruzko planean jasotakoa betetzeko, alde batetik, Araubide Juridikoaren eta Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko Sozialaren Zuzendaritzak sartzen dira lantalde horretan, eta honela geratzen da osatuta:

- Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza, idazkari lanetan.
- Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza.
- Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.
- Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza.
- Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuak kudeatzen dituzten organoak (Aldundiko Zuzendaritza Nagusiak eta/edo merkataritzako foru sozietateak), bilera deialdia dagokion irismenaren arabera egiten denean.

Bestetik, areagotu egiten dira haren funtzioak:

- Iruzur arriskuaren hasierako autoebaluazioa eta berrikuspenak egitea.
- Bandera gorrien katalogoa ezartzea, bai eta horiek aplikatzeko prozedurak ere.
- Interes gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko beharrezkoa den beste edozein dokumentu eredu egitea.
- Erakundearen Etika Batzordeak planteatutako gaiei laguntza ematea.

- Iruzurraren eragina ebaluatzea eta sistemikotzat edo puntualtzat jotzea.
- Iruzurraren aurkako neurrien aplikazioa gainbegiratzea eta interes gatazka, iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko prozedurak zuzentzeko eta hobetzeko neurriak proposatzea.
- Departamentuei eta beste erakunde batzuei aholkularitza ematea, iruzurraren aurkako araudia, helburuak eta neurriak oro har hobeto betetzeko.
- Iruzurraren aurkako neurrien planaren garapenean egin daitezkeen aldaketak proposatzea.
- Plana, planaren garapena eta planaren inguruan egin beharreko gainerako komunikazioak jakinaraztea eta hedatzea.

Batzorde horrek Gipuzkoako Foru Aldunditik kanpoko aditu independenteen laguntza izan dezake.

Komite honen eraketa, osaera eta funtzionamendua administrazio-publikoetako kide anitzeko organoetarako ezarritako arauen arabera arautuko dira.

## 5. Jarraipena

Iruzurra Prebenitzeko Batzordeak gutxienez urtean behin berrikusiko ditu plana eta haren garapena. Nolanahi ere, iruzur arriskuaren autoebaluazioa bi urtean behin edo urtean behin berrikusiko da, iruzur arriskuaren arabera, eta, kasu guztietan ere, prozeduretan edo langileen artean aldaketa nabarmenak gertatzen direnean.

## 6. Publizitatea

Planari eta haren garapenari buruzko aldaketak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Europako funtsei buruzko webgunean argitaratuko dira, eta inplikaturiko langile guztiei zabalduko zaizkie.

## 7. Eranskinak

1. eranskina. Interes gatazkak komunikatzea eta haiekin loturiko prozedura
2. eranskina. Interes gatazkak prebenitzeko prozedurak aztertzea eta ezartzea
  - Kontratazio espedienteak
  - Dirulaguntzen espedienteak
  - Bitarteko propioen enkarguak, kudeaketa mandatuak eta hitzarmenak
3. eranskina. DACI ereduak
  - 1. EREDUA. DACI OROKORRA
  - 2. EREDUA. DACI MINERVA
  - 3. EREDUA. DACI BERRETSI
  - 4. EREDUA. DACI OPERADORE EKONOMIKOAK
4. eranskina. Bandera gorriak eta egiaztapen ereduak
  - Kontratazio espedienteak
  - Dirulaguntzak emateko espedienteak
  - Bitarteko propioei egindako enkargu espedienteak
  - Hitzarmen espedienteak

## 8. Aldaketak

Zk.	Data	Berrikuspenaren deskribapena	Foru Agindua

## 1. eranskina: Interes gatazkaren jakinarazpena eta prozedura

Egoera baten inguruabar bereziek interes gatazka mota desberdinak eragin ditzakete:

- **Ageriko interes gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezakete haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dago lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren portaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo ez du alderdi horietan eraginik).

*Egoera horretan, badirudi pertsona batek bere erabakietan edo ekintzetan eragina izan dezaketen interes pertsonalak izan ditzakeela, nahiz eta benetan hala ez izan, baina beste batzuek bere inpartzialtasuna zalantzan jartzea eragin lezake.*

- **Balizko interes gatazka:** enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek interes gatazka sor dezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.

*Hau da, pertsona baten interes pertsonalek etorkizunean bere erabaki edo ekintzetan eragina izateko aukera dago, oraindik gertatu ez bada ere. Behar bezala kudeatzen ez bada aurrerago arazo bat egon litekeela ohartarazten duen seinale bat da.*


- **Benetako interes gatazka:** enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka, edo enplegatu publiko baten interes pertsonalek eragin bidegabea izatea bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke laguntza funtsak eskatu zituenean hartutako betebeharretan eragin desegokia izan badezakete bere interes pribatuek.

*Egoera horretan, interes pertsonalak eragina izaten ari dira bere erabaki edo ekintzetan modu zehatzean, interferentzia zuzena dago jada interes pertsonalen eta erantzukizun profesional edo publikoen artean.*

Interes-gatazka posible baten inguruan zalantzak sor ditzaketen egoera horietan, enplegatu edo kargu publikodun orok honako hauek egin beharko ditu:

1.- **Erakundearen Etika Batzordeari** kontsulta egitea. Batzorde horrek erabakiko du gaiaren inguruabar bereziek Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa urratzea dakarten, eta hartu beharreko neurriak gomendatuko ditu. Gaia ebatzi bitartean, ez du parte hartuko, ez zuzenean ez zeharka, dena delako prozeduran.

2.- Interes gatazka egon daitekeela jakinaraziko dio **hierarkian gorago dagoen pertsonari**, eta horrek, Erakundearen Etika Batzordeak ebatzitakoa kontuan hartuta, egoki diren neurriak eta erabakiak hartuko ditu.



## **2. eranskina. Interes gatazkak prebenitzeko prozedurak aztertzea eta ezartzea**

### **Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan interes gatazkak izateko arriskua kontrolatzeko prozedura bat aztertzea eta ezartzea**

Jarraibide hauek bereziki eginak dira kontratazio prozedura guztietan interes gatazkak izateko arriskua prebenitzeko zer jarraibide baliatu behar diren argitzeko eta bateratzeko.

#### **1. Aldez aurreko argibideak interes gatazken kontzeptuari buruz.**

Lehenik eta behin, interes gatazkei buruzko zenbait alderdi argitu behar dira.

##### **1.1. Interes gatazken kontzeptua:**

Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduak (EB, Euratom) ezartzen duenez, interes gatazkatzat hartuko da, baldin eta aurrekontua gauzatzeko zereginean —zuzenean, zeharka eta modu partekatuan— eta kudeaketan —prestaketa egintzetan, auditoretzan edo kontrolean barne— parte hartzen duten finantza eragileek eta gainerako pertsonak beren eginkizunen erabilera inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute, arrazoi familiarrak, afektiboak, kidesun politiko edo nazionalakoak edo interes ekonomikokoak direla eta, edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik.

Bestalde, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 53.5 artikuluan adierazten duenez, enplegatu publikoak “Interes pertsonala duten gaitan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesetik gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai”.

Horretaz gainera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 64. artikulua adierazten duenez, interes gatazkaren kontzeptuak hau jasoko du gutxienez: “Kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik”.

##### **1.2. Hauek dira interes gatazkaren batean inplikaturik egon daitezkeen eragileak:**

- a) Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietakoren bat eskuordetu zaien beste agente batzuk.
- b) Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete —

baina Europar Batasunaren finantza interesen aurka—, interes gatazkaren baten esparruan<sup>1</sup>.

1.3. Interes gatazka zenbait eratakoa izan daiteke:

- a) Agerikoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezakete haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dago lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren portaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo ez du alderdi horietan eraginik).
- b) Balizkoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek interes gatazka sor dezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- c) Benetakoa: enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka, edo enplegatu publiko baten interes pertsonalek eragin bidegabea izatea bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke laguntza funtsak eskatu zituenean hartutako betebeharretan eragin desegokia izan badezakete bere interes pribatuek.

## **2. Interes gatazkak aztertzeko kasuak eta inguruabarrak**

### **2.1. GFaren zuzentasun sistema**

Gipuzkoako Foru Aldundiak badu Zuzentasun Sistema bat, jokabide kode batzuek osaturik; horien artean, Kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua, zeinak betebeharrak ezartzen baitizkie bai kontratazioetan parte hartzen duten kargu publikodunei eta enplegatuei, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren foru sektore publikoko erakundeek sustatutako lizitazioetara aurkezten diren enpresei.

Jokabide kode horren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren foru sektore publikoko erakundeek sustatutako edozein kontratazio prozeduratan parte hartzen duen edozein operadore ekonomikorik nahitaez sinatu behar dute Jokabide Kode hori betetzeko konpromisoa.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoko Erakundearen Etika Batzordeak 2019ko txostenean gomendatzen zuenez, komenigarria da prozedura edo protokolo espezifiko bat ezartzea hasiera batean kontratazio mahaietako eta balorazio batzordeetako kideen artean interes gatazkarik ez dagoela erregistratzeko.

### **2.2. Europar Batasuneko finantza interesak babestea**

Batasuneko legediak hainbat xedapen jasotzen ditu horri buruz. Zehazki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 310. eta 325. artikuluetan ezartzen duenez, Batasunaren aurrekontua finantza kudeaketa onaren printzipioaren arabera egikaritu behar da, eta estatu kideek, EBrekin batera, aurre egin behar diete iruzurrari eta EBren finantza interesari kalte egiten dien lege kanpoko beste ezin jarduerari. Gainera, horri buruzko neurriak hartu behar dituztela ezartzen du. Bestalde, 2018ko Finantza Erregelamenduak ere jasotzen ditu lehen aipatutako bi alderdi horiek. Gainera,

---

<sup>1</sup> Kontzeptu horrek Europako funtsekin finantzatzeko jarduerak aipatzen baditu ere —hau da, Europar Batasunaren finantza interesen aurka doazenak—, guztiz aplikagarria da Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren funtsekin finantzatzeko diren eta haren interesen aurka doazen jarduketetan.

iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak hartzea azpimarratzen du, baita interes gatazkak prebenitzekoak ere.

Gainera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak xedatzen duenez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren neurriak egikaritzen parte hartzen duen erakunde erabakitzailerik edo betearazle orok, besteak beste, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (DACI) bete beharko dute.

Era berean, 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarriak interes gatazken arriskuaren azterketa sistematikoa eta automatizatua egiteko arauak ezartzen ditu. Xedapen horretan aurreikusitakoa aplikatuz eman zen HPF/55/2023 Agindua, zeinaren bidez Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren gutxieneko edukia eta MINERVA prozedura arautzen baitira, eta, azkenik, interes gatazkaren arrisku egoera bat identifikatzearen ondorioak adierazten baitira.

### 2.3. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenen (DACI) ereduak

Prozedurak sinplifikatu eta bateratze aldera, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenak estandarizatzea erabaki da. Hori horrela, DACI OROKORRA izeneko dokumentu komuna erabiliko da, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatzeko kontratuen kasuan izan ezik, kasu jakin batzuetan adierazpen elektronikoak erabiliko baitira (DACI MINERVA).

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenen (DACI) dagokienez, lau eredu daude:

1. Kontratazio prozeduran parte hartzen duten enplegatu eta kargu publikoek aurkeztu beharreko adierazpena (DACI OROKORRA).
2. Kontratazio organoek eta hauei laguntza emateko kide anitzeko organoetako kideek aurkeztu beharreko adierazpena, baldin eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatzeko diren kontratuei buruzko eskaintzen balorazio faseetan, adjudikazio proposamenetan eta kontratuaren adjudikazio faseetan (kontratazio mahaiak) parte hartzen badute (DACI MINERVA).
3. Bandera gorri batek eragindako pertsonak interes gatazkarik ez duela baieztatzen duen adierazpena (DACI BERRETSI).
4. Enpresa lizitatzailerik, kontratistek eta azpikontratistek aurkeztu beharreko adierazpena (DACI OPERADORE EKONOMIKOAK).

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenek jasotzen dituzten dokumentuak eta ager daitezkeen interes gatazkak jasotzen dituztenak kontratazio espedientean sartu beharko dira, auditoretza pista egokia gordetzeko.

### 3. Prozedurak

Prozedura zehatzei dagokienez, alderdi hauek bereizten dira:

- 3.1. 9/2017 Legearen kontratuak, kontratu txikiak izan ezik.
- 3.2. Kontratu txikiak.
- 3.3. MINERVA prozedura.

### 3.1. 9/2017 Legearen kontratuak, kontratu txikiak izan ezik.

Apartatu honetan sartuko dira Europako funtsekin finantzatutako kontratuak (horien artean, nabarmentzekoak dira Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatutakoak); baita Europako funtsekin finantzatu ez direnak ere, baldin eta kontratu txiki gisa izapidetu ez badira (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 118. artikulua).

Beraz, honela jokatu beharko da horrelako kontratuetan:

#### **a) Lizitazio agiriak idazten dituzten langileak:** DACI OROKORRA sinatuko dute.

- Kontratazioa sustatzen duten unitateetako teknikariek, justifikazio memoria izenpetzen dutenek edo preskripzio tekniko partikularren agiria egiten dutenek. Noiz? Justifikazio memoria edo baldintza tekniko partikularren agiria sinatzen duen unean, eta dagokion dokumentuari erantsiko zaio.
- Administrazio klausula partikularren agiria idazten duten langileek. Noiz? Agiria idatzi aurretik, eta hari erantsiko zaio.

#### **b) Kontratazio organoaren arduraduna:**

- ▶ Oro har: DACI OROKORRA sinatuko da.

Noiz? Kide anitzeko organoen kasuan, kontratazio espedientea onesteko egiten den bileraren hasieran sinatuko dute kideek. Kide anitzeko ez diren organoen kasuan, kontratazio organoak sinatuko du DACIa, kontratua eta espedientea onesteko foru aginduarekin edo ebazpenarekin batera.

- ▶ Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatutako kontratuak: organo indibidualek edo kide anitzekoek, baita delegazio bidez jarduten dutenek ere, DACI MINERVA sinatuko dute.

Noiz? Enpresa lizitatzailerak edo hautagaiak nor diren jakin ondoren, hau da, 1. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ondoren.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lizitatutako kontratuen kasuan, kontratazio organoa Diputatuen Kontseilua denean eta kontratua esleitzeko ahalmena foru diputatuei eskuordetzen zaienez, DACI MINERVA ordezkari jaso duen foru diputatuak bakarrik sinatuko du. Kide anitzeko kontratazio organoko gainerako kideek DACI OROKORRA sinatuko dute kontratazio espedientea onesten den unean.

Kontratazio organoak kontratazio espedientea onesten duen aginduan edo ebazpenean aipatu beharko da jasotzen direla dagozkion adierazpenak, eta, haien bidez, justifikazio memoria, preskripzio tekniko partikularren baldintza agiria eta administrazio klausula partikularren agiria idazteko ardura duten langileek adierazi dutela haien aldetik ez dagoela interes gatazkarik.

#### **c) Kontratazio organoari laguntzeko kide anitzeko organoetako kideak, eskaintzen balorazio faseetan, adjudikazio proposamenetan eta adjudikazioetan parte hartzen dutenak (kontratazio mahaiak):**

- ▶ Oro har: DACI OROKORRA sinatuko da.

Noiz? Enpresa lizitatzailleak edo hautagaiak nor diren jakin ondoren, hau da, 1. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ondoren.

► Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatutako kontratuak: DACI MINERVA sinatuko dute.

Noiz? Enpresa lizitatzailleak edo hautagaiak nor diren jakin ondoren, hau da, 1. zenbakiko artxibo elektronikoak ireki ondoren.

Aktan jaso beharko da sinatu direla kasuaren arabera dagozkion DACIak.

**d) Eskaintzak ebaluatzen dituzten adituak:**

• Kontratazioa sustatzen duten unitateetako eskaintzak balioesten dituzten teknikariek, edo kanpoko erakunde espezializatuak.

► Oro har: DACI OROKORRA sinatuko da.

Noiz? Eskaintzen balorazioa egiten hasi aurretik, eta balorazio txostenari erantsiko zaio.

► Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatutako kontratuak: DACI MINERVA sinatuko dute.

Noiz? Eskaintzen balorazioa egiten hasi aurretik, eta balorazio txostenari erantsiko zaio.

**e) Enpresa lizitatzailleak edo hautagaiak.**

Noiz? Eskaintzak aurkezteko unean (prozedura irekia) eta parte hartzeko eskaerak aurkeztean (prozedura murriztua edo negoziatua). (DACI OPERADORE EKONOMIKOAK).

**f) Kontratatik eta azpikontratatik.**

Noiz? Kontratatari dagokionez, nahikoa izango da lizitzeko egin zuen aitortzea. Azpikontratatari dagokionez, kontratatari bere aitortzea aurkeztu beharko ditu kontratua esleitu ondoren (DACI OPERADORE EKONOMIKOAK) eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasi aurretik, baita aldaketaren bat edo azpikontratatari berri bat dagoen bakoitzean ere.

**3.2. Kontratu txikiak.**

Kasu honetan, kontratu txikia operadore ekonomiko bati adjudikatzea proposatzen duen kontratua sustatzeko zerbitzuko teknikariek DACI OROKORRA sinatu beharko dute, justifikazio memoria izenpetzearekin batera.

Era berean, zerbitzu sustatzaileak operadore ekonomikoari bidaltzen dion eskaintza aurkezteko gonbidapenean adierazi beharko da operadore hori beharturik dagoela DACI OPERADORE EKONOMIKOAK sinatzera (gonbidapenari erantsiko zaio eredu), eta operadore ekonomikoak eskaintzarekin batera aurkeztu beharko duela.

Kontratu txikia adjudikatu aurretik, kontratazio organoak DACI OROKORRA sinatu beharko du, salbu eta kontratu txikia Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatu behar bada. Kasu horretan, interes gatazkaren analisi prozedura sistematikoa abiaraziko da; horretarako, DACI MINERVA sinatuko du kontratazio organoak eta dagozkion datuak sartuko dira dagokion tresna informatikoan.

Aurrekotik salbuetsita geratzen dira 1.500,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuen ordainketak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratu txikien izapidetxe elektronikorako prozedurari buruzko jarraibidea onesten duen 2020ko abenduaren 18ko 2020/0501 Foru Aginduaen I. eranskinaren 11. apartatua jasotakoak.

3.3. MINERVA prozedura.

**a) Interes gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoaren eta automatizatuaren ezaugarriak**

Prebentzioz egiten den azterketa bat da, interes gatazka potentziala —eta, beraz, iruzurra— murrizteko. Horretarako, “data mining” tresnak erabiliko dira (prozesu teknikoa, automatikoa edo erdiautomatikoa, sakabanatutako informazio kantitate handiak aztertzen dituen, zentzua emateko eta ezagutza bihurtzeko).

**b) Analisia egiteko tresnak**

Analisia egiteko, tresna informatiko bat erabiliko da, eta hark aztertuko ditu familia harremanak eta sozietate loturak, zuzenekoak zein zeharkakoak, baldin eta pertsona erabakitzaile batek interes pertsonala edo ekonomikoa izan badezake eta interes horrek interes gatazka bat eragin badezake arestian aipatutako pertsonen eta prozedura bakoitzean parte hartzen dutenen artean.

**c) Aplikazio esparrua**

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeari lotutako kontratuak adjudikatzeko prozedura guztiek aplikatuko zaie, edozein izanik ere horien zenbatekoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Legea aplikagarria ez bazaio ere. Analisia prozedura bakoitzean egingo da (baita kontratu txikietan ere). Azterketa hori prozedura ireki eta murriztuaren bidez izapidetutako kontratu guztietan egingo da, baldin eta haien deialdia 2023ko urtarrilaren 26tik aurrera argitaratzen bada, bai eta eskaintzen eskaera adierazitako datatik aurrera bidali den kontratu txikietan ere. Azterketa hori egingo da, orobat, aurretiazko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetutako kontratuetan ere, baldin eta horien baldintza agiriak data beretik aurrera onetsi badira.

**d) Pertsonak**

Analisiaren ardatza funtzio hauek betetzen dituzten pertsonak dira:

- Kontratazio organoak – banakakoak edo kide anitzekoak, baita eskuordetuta jarduten dutenak ere.
- Kontratazio organoari laguntzeko kide anitzeko organoetako kideak, eskaintzen balorazio faseetan, adjudikazio proposamenetan eta kontratuaren adjudikazioetan parte hartzen dutenak.

**e) Sinatzea**

Pertsona horiek elektronikoki sinatu beharko dituzte DACI MINERVA agiriak, prozedura bakoitzeko parte hartzaileak zein diren jakin ondoren (enpresa lizitatzailerak, hautagaiak).

## f) Prozedura

Interes gatazkaren arriskua aztertzeko prozedura eskaintzak baloratu aurretik egin behar da, eta eragiketaren ardura duen pertsonak hasiko du (hau da, kontratazio organoak, banakakoa edo kide anitzekoa). Eragiketaren arduradunak pertsona bat izenda dezake “eragiketa editore”, prozedura hori betearazteaz arduratuko dena.

Harreman horiek identifikatzeko, pertsona juridikoen benetako titulartasunari buruzko datuak hartuko dira kontuan.

Eragiketen arduradunak edo eragiketen editoreak eragiketan parte hartzen duten guztien informazioa sartu beharko du dagokion tresna informatikoan:

- Eragiketan erabakigarriak diren pertsonen IFZ eta izen-abizenak.
- Guztiek sinatutako DACI elektronikoak.
- Lizitzaileen edo hautagaien IFZ eta izen-abizenak edo sozietatearen izena.

Datuak sartu eta hurrengo egunean, eragiketen arduradunak analisiaren emaitza jasoko du. Hauek izan daitezke emaitzak:

- i. Ez da detektatu bandera gorririk, eta, beraz, prozedurak aurrera jarraitzen du normal.
- ii. Bandera gorri bat edo batzuk hauteman dira.

Azken kasu horretan, eragiketaren arduradunak ukituriko erabakitzaielaren eta arrisku bikotearen (enpresa lizitzailea edo hautagaia) IFZ jasoko du, eta prozedura honi jarraituko zaio:

- Eragiketaren arduradunak emaitzaren berri eman beharko die ukituriko erabakitzaielari, hierarkian gorago dagoen pertsonari eta proiektuaren/azpiproiektuaren arduradunari.
- Ukituriko erabakitzaielak aukeran izango du:
  - Bi egun balioduneko epean abstenitzea.
  - Ez onartzea informazioaren baliozkotasuna eta hierarkian gorago dagoen pertsonaren aurrean alegazioak aurkeztea, beste DACI batekin batera (BERRETSI).

Kasu horretan, bai eragiketaren arduradunak, bai hierarkian gorago dagoen pertsonak informazio gehigarria eskatu eta bila dezakete agertu den arriskuari buruz (bai tresna informatikotik, baita egokiak irizitako kanpo edo barneko organoetatik ere).

Informazio hori guztia ikusita, hierarkian gorago dagoen pertsonak aukeran izango du, behar bezala arrazoituta, erabakia hartu duen pertsonaren parte-hartzea onartzea edo, aldiz, abstenitzeko agintzea.

Bandera gorriak eragindako erabakitzaielaren egoera argitzen ez den bitartean, ezingo da jarraitu prozedurarekin, eta, beraz, hau etenda geratuko da.

Ukituriko erabakitzaiela abstenitzen bada, eragiketaren arduradunak ordeztuko duen pertsonarekin aztertuko du interes gatazkaren arriskua.

iii. Bandera beltz bat edo batzuk hauteman dira.

Hori gertatzen da ez denean aurkitzen pertsona juridikoaren benetako titulartasunari buruzko informaziorik, eta, ondorioz, ezin denean arriskuaren azterketa egin.

Egoera horrek ez dakar prozedura automatikoki etetea.

Kasu horretan, eragiketaren arduradunak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko dio enpresa lizitatzailerari. Lizitatzailerak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du informazioa, eskatu zitzaionetik zenbatzen hasita, eta epe horretan ez badu aurkezten, baztertzeko arrazoia izango da. Hala, ezinbestekoa izango da aurreikuspen hori administrazio klausula partikularren agirian sartzea.

Benetako titulartasunari buruzko informazioa jaso ondoren, eragiketaren arduradunak beste kontrol bat egingo du *ex ante*, benetako titularrei buruzko datuak sartuta.

#### **4. Balizko interes gatazkei aurre egiteko neurriak**

Edozein enplegatutako publikok (batez ere kontratazio mahaiko kideak) edo kargu publikodunek (kontratazio organoa edo kontratazio organoko kidea), kontratazio prozedura batean parte hartuz gero (batez ere enpresa lizitatzailerak edo hautagaiak nor diren jakin ondoren), prozedura honi jarraitu beharko diote, baldin eta haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar lezakeen interesen bat badute:

- a) Erakundearen Etika Batzordeari kontsulta egitea.
- b) Balizko interes gatazkaren egoeraren berri ematea hierarkian gorago dagoen pertsonari, eta hark idatziz baieztatuko du gatazka hori ageri ala ez, Batzordeak gomendatutakoaren arabera. Interes gatazka bat ageri dela irizten zaionean, izendapenak egiteko eskumena duen agintariak bereziki zainduko du pertsona horrek bertan behera uzten duela gai horrekin loturiko jarduera oro. Era berean, beste edozein neurri gehigarri hartu ahal izango du, aplikatzekoa den zuzenbidearekin bat etorriz.
- c) Zorrotz aplikatzea dagokion barne araudia (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa), bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua, errekusatzeari buruzkoa, eta Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua.

## **Gipuzkoako Foru Aldundiak eta haren sektore publikoak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez finantzatutako funtsekin dirulaguntzak ematean interes gatazken arriskua kontrolatzeko prozedura aztertzea eta ezartzea**

Argibide hauek bereziki eginak dira Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzatutako funtsekin dirulaguntzak emateko prozeduretan interes gatazken arriskua prebenitzeko jarraitu beharreko jarraibideak argitzeko eta bateratzeko.

### **1. Aldez aurreko argibideak interes gatazken kontzeptuari buruz**

Lehenik eta behin, interes gatazkei buruzko zenbait alderdi argitu behar dira.

#### **1.1. Interes gatazken kontzeptua:**

Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauak buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduak (EB, Euratom) ezartzen duenez, interes gatazkatzat hartuko da, baldin eta aurrekontua gauzatzeko zereginean —zuzenean, zeharka eta modu partekatuan— eta kudeaketan —prestaketa egintzetan, auditoretzan edo kontrolean barne— parte hartzen duten finantza eragileek eta gainerako pertsonak beren eginkizunen erabilera inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute, arrazoi familiarak, afektiboak, kideatasun politiko edo nazionalekoak edo interes ekonomikokoak direla eta, edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik.

Bestalde, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 53.5 artikuluan adierazten duenez, enplegatu publikoek “Interes pertsonala duten gaitan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesetik gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai”.

Gainera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 d) artikulua adierazten duenez, “ondorengo zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsona edo entitateak ezin izango dira izan foru arau honetan arautzen diren diru laguntzen pertsona onuradunak edo entitate laguntzaileak, non eta diru laguntzaren izaeragatik beragatik ez den bere araudi erregulatzailan horrelakorik salbuesten”. Adierazten diren zirkunstantzien artean, apartatu horretako d) letrak honako hau zehazten du: “Pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak bateraezintasun kasuetakoren batean sartuta daudenean gai horiei buruzko arauetan aurreikusitako eran”.

#### **1.2. Hauek dira interes gatazkaren batean inplikaturik egon daitezkeen eragileak:**

- a) Sustapen, kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietakoren bat eskuordetu zaien beste agente batzuk.
- b) Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete —

baina Europar Batasunaren finantza interesen aurka—, interes gatazkaren baten esparruan.

1.3. Interes gatazka zenbait eratakoa izan daiteke:

a) Agerikoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezakete haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dago lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren portaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo ez du alderdi horietan eraginik).

b) Balizkoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek interes gatazka sor dezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.

c) Benetakoa: enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka, edo enplegatu publiko baten interes pertsonalek eragin bidegabea izatea bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke laguntza funtsak eskatu zituenean hartutako betebeharretan eragin desegokia izan badezakete bere interes pribatuek.

## **2. Interes gatazkak aztertzeko kasuak eta inguruabarrak**

### **2.1. GFAREN zuzentasun sistema**

Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat jokabide kodez osatutako Zuzentasun Sistema bat du, besteak beste, [Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua](#). Kode horrek betebeharrak ezartzen dizkie bai laguntzak eta dirulaguntzak ematen parte hartzen duten kargu publikoei eta enplegatuei, bai erakunde eta enpresei, bai dirulaguntzak eta laguntzak jasotzen dituzten gainerako erakunde onuradunei.

Jokabide kode horren arabera, nahitaez bete behar da laguntzen eta dirulaguntzen oinarri arautzailetan eta —kasuak hala eskatzen duenean, deialdietan— sustapen neurri horien onuradunak kode horri atxikitzeko betebeharrak ezartzea, bai eta lehiarik gabeko zuzeneko laguntzen edo dirulaguntzen baldintzetan ere.

### **2.2. Europar Batasuneko finantza interesak babestea**

Batasuneko legediak hainbat xedapen jasotzen ditu horri buruz. Zehazki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 310. eta 325. artikuluetan ezartzen duenez, Batasunaren aurrekontua finantza kudeaketa onaren printzipioaren arabera egikaritu behar da, eta estatu kideek, EBrekin batera, aurre egin behar diete iruzurrari eta EBren finantza interesei kalte egiten dien legez kanpoko beste ezein jarduerari. Gainera, horri buruzko neurriak hartu behar dituztela ezartzen du. Bestalde, 2018ko Finantza Erregelamenduak ere jasotzen ditu lehen aipatutako bi alderdi horiek. Gainera, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak hartzea azpimarratzen du, baita interes gatazkak prebenitzekoak ere.

Gainera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratu duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak xedatzen duenez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren neurriak egikaritzen parte hartzen duen erakunde erabakitzailerik edo betearazle orok, besteak beste, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (aurrerantzean, DACI) bete beharko dute.

Era berean, 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarriak interes gatazken arriskuaren azterketa sistematikoa eta automatizatua egiteko arauak ezartzen ditu. Xedapen horretan aurreikusitakoa aplikatuz eman zen HPF/55/2023 Agindua. Han, DACIaren gutxieneko edukia eta Minerva prozedura arautzen dira (100 eskaera baino gehiago dituzten konkurrentzia masiboko dirulaguntzak emateko prozeduretarako laginketa erabiliz). Eta, azkenik, interes gatazkaren bat izateko arriskua identifikatzearen ondorioak adierazten dira.

### 2.3. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenen (DACI) ereduak

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak finantzaturako dirulaguntzen kasuan, DACI OROKORRA izeneko dokumentu komun bat erabiliko da nagusiki, adierazpen elektronikoak erabiliko diren kasu jakin batzuetan izan ezik (DACI MINERVA).

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenei (DACI) dagokienez, lau eredu daude:

1. Dirulaguntza prozeduran parte hartzen duten enplegatu eta kargu publikodunek aurkeztu beharreko adierazpena (DACI OROKORRA).
2. Departamentu bakoitzeko idazkaritza teknikoko kideek eta eskabideak baloratzeko faseetan (ebaluazio batzordeko langileak) eta dirulaguntza emateko ebazpenean parte hartzen duten organoek aurkeztu beharreko adierazpena (DACI MINERVA).
3. Bandera gorri batek eragindako pertsonak interes gatazkarik ez duela baieztatzen duen adierazpena (DACI BERRETSI).
4. Pertsona/erakunde eskatzaileek eta azpikontratistek aurkeztu beharreko adierazpena (DACI OPERADORE EKONOMIKOAK).

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenek jasotzen dituzten dokumentuak eta ager daitezkeen interes gatazkek jasotzen dituztenak dirulaguntzak esleitzeko espedientean sartu beharko dira, auditoretza pista egokia gordetzeko.

### 3. Prozedurak

Prozedura zehatzei dagokienez, alderdi hauek bereizten dira:

- 3.1. Deialdia daukan prozedura.
- 3.2. Zuzenean emateko prozedura.
- 3.3. MINERVA prozedura.

### 3.1. Deialdia daukan prozedura.

Atal honetan sartzen dira norgehiagoka prozedura arruntaren bidez edo norgehiagoka prozedura ez-lehiakorren bidez emandako dirulaguntzak, 3/2007 Foru Arauaren 20.1 eta 20.2 artikuluetan arautuak, hurrenez hurren.

Beraz, honela jokatu beharko da dirulaguntzak emateko prozedura mota horietan:

**a) Espedienteko dokumentuak idazten dituzten langileak**

- ▶ DACI OROKORRA sinatuko da.
- Justifikazio memoria sinatzen duen zerbitzuburuak.  
Noiz? Justifikazio memoria sinatzen duen unean, eta dagokion dokumentua erantsiko zaio.
- Dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak idazten dituen teknikariek edo deialdia idazten dutenek.  
Noiz? Oinarri arautzaileak edo deialdia idatzi aurretik —haiei erantsita—.

**b) Foru Diputatuen Kontseiluko kideak**

- ▶ DACI OROKORRA sinatuko da.
- Noiz? Foru Diputatuen Kontseiluko kideek sinatuko dute, gai zerrendan dirulaguntzen oinarri arautzaileen onarpena aurreikusten duen bileraren hasieran.

Ez da beharrezkoa izango beste DACI bat sinatzea, baldin eta oinarri arautzaileak eta deialdia ez badira onesten Foru Diputatuen Kontseiluaren erabaki berean eta deialdia ondoren onesten bada.

Foru Diputatuen Kontseiluak onetsitako dirulaguntzen oinarri arautzaileek foru diputatuei edo zuzendariei ebazteko ahalmena eskuordetzen dietenean, kargu publikodun horiek bakarrik sinatuko dute DACI MINERVA.

**c) Idazkaritza teknikoko langileak**

- ▶ DACI MINERVA sinatuko da.
- Noiz? Pertsona/erakunde eskatzaileen nortasuna jakin ondoren, eta eskabideek dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatu aurretik.

**d) Ebaluazio batzordeetako langileak**

- ▶ DACI MINERVA sinatuko da.
- Noiz? Eskabideak balioesten hasi aurretik.

**e) Dirulaguntzak ematea ebazten duten kargudun publikoak**

- ▶ DACI MINERVA sinatuko da.
- Noiz? Dirulaguntza emateko foru agindua edo ebazpena eman aurretik.

**f) Justifikazio kontua egiaztatzeko ardura duten langileak**

- ▶ DACI OROKORRA sinatuko da.
- Noiz? Oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzeko prozedurari ekin aurretik.

Justifikazio kontua egiaztatzeko ardura duten langileek aurretik sinatu badute, ez da izango beharrezkoa DACI OROKORRA sinatzea.

**g) Pertsona edo erakunde eskatzaileak**

- ▶ DACI OPERADORE EKONOMIKOAK sinatuko da.
- Noiz? Eskabideak aurkezteko unean.

3.2. Zuzenean emateko prozedura.

Atal honetan sartuko dira 3/2007 Foru Arauaren 20.3 artikuluan araututako prozeduren bidez zuzenean emandako dirulaguntzak.

**a) Dokumentuak idazten dituzten langileak**

- ▶ DACI MINERVA sinatuko da.
  - Justifikazio memoria sinatzen duen zerbitzuburuak.
- Noiz? Justifikazio memoria sinatzen duen unean, eta dagokion dokumentua erantsiko zaio.

**b) Dirulaguntzak zuzenean ematea onesten duten kargu publikodunak**

- ▶ DACI MINERVA sinatuko da.

Noiz? Dirulaguntza emateko eta/edo hitzarmena onesteko erabakia hartu aurretik.

**c) Justifikazio kontua egiaztatzeko ardura duten langileak**

- ▶ DACI OROKORRA sinatuko da.

Noiz? Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzeko prozedurari ekin aurretik.

Justifikazio kontua egiaztatzeko ardura duten langileek aurretik sinatu badute, ez da izango beharrezkoa DACI OROKORRA sinatzea.

**d) Pertsona edo erakunde onuradunak**

- ▶ OPERADORE EKONOMIKOENTZAKO DACIa sinatuko da.

Noiz? Dirulaguntza eman aurretik.

3.3. MINERVA prozedura.

**a) Interes gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoaren eta automatizatuaren ezaugarriak**

Prebentzioz egiten den azterketa bat da, interes gatazka potentziala —eta, beraz, iruzurra— murrizteko. Horretarako, “data mining” tresnak erabiliko dira (prozesu teknikoa, automatikoa edo erdiautomatikoa, sakabanatutako informazio kantitate handiak aztertzen dituen, zentzua emateko eta ezagutza bihurtzeko).

## b) Analisia egiteko tresnak

Analisia egiteko, tresna informatiko bat erabiliko da, eta hark aztertuko ditu familia harremanak eta sozietate loturak, zuzenekoak zein zeharkakoak, baldin eta erabakitzaile batek interes pertsonala edo ekonomikoa izan badezake eta interes horrek interes gatazka bat eragin badezake arestian aipatutako pertsonen eta prozedura bakoitzean parte hartzen dutenen artean.

## c) Aplikazio esparrua

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeari lotutako dirulaguntzak emateko prozedura guztiei aplikatuko zaie, zenbatekoa edozein dela ere, eta prozedura bakoitzean egingo da azterketa. Azterketa hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren arabera izapidetutako dirulaguntza guztietan egingo da, betiere 2023ko urtarrilaren 26tik aurrera ematea erabakitzen bada.

## d) Pertsonak

Analisiaren ardatza funtzio hauek betetzen dituzten pertsonak dira:

- Eskabideek dirulaguntzen oinarri arautzaileetan, emakiden ebazpenetan edo hitzarmenetan ezarritakoa betetzen dutela egiaztatzen duten langileak.
- Emateko eskumena duten organoetan parte hartzen duten pertsonak edo titularrak.
- Eskabideak baloratzeko kide anitzeko organoetan parte hartzen duten pertsonak (eskabideak baloratzeko faseetan).
- Onartutako eskaerak ebaluatzen dituzten adituak.

## e) Sinatzea

Pertsona horiek elektronikoki sinatu beharko dituzte DACI MINERVA ereduak, prozedura bakoitzean pertsona/erakunde eskatzaileak zein diren jakin ondoren.

## f) Prozedura

Interes gatazken arriskua aztertzeko prozedura eskabideak baloratu edo emakida ebatzi aurretik egin behar da, eta eragiketaren ardura duen pertsonak hasiko du (hau da, dirulaguntza emateko organo eskudunak). Eragiketaren arduradunak pertsona bat “eragiketa editore” izenda dezake prozedura hori betearazteaz arduratuko dena.

Harreman horiek identifikatzeko, pertsona juridikoen benetako titulartasunari buruzko datuak hartuko dira kontuan.

Eragiketen arduradunak edo eragiketen editoreak eragiketan parte hartzen duten pertsona/erakunde guztien informazioa sartu beharko du dagokion tresna informatikoan:

- Eragiketan erabakigarriak diren pertsonen IFZ eta izen-abizenak.

- Guztiek sinatutako DACI elektronikoak.
- IFZ, pertsona/erakunde eskatzaileen izena edo sozietate izena.

Datuak sartu eta hurrengo egunean, eragiketen arduradunak analisiaren emaitza jasoko du. Hauek izan daitezke emaitzak:

i. Ez da detektatu bandera gorririk, eta, beraz, prozedurak aurrera jarraitzen du normal.

ii. Bandera gorri bat edo batzuk hauteman dira.

Azken kasu horretan, eragiketaren arduradunak ukituriko erabakitzailearen eta arrisku bikotearen (eskatzailea) IFZ jasoko du, eta prozedura honi jarraituko zaio:

- Eragiketaren arduradunak emaitzaren berri eman beharko die ukituriko erabakitzaileari, hierarkian gorago dagoen pertsonari eta proiektuaren/azpiproiektuaren arduradunari.
- Ukituriko erabakitzaileak aukeran izango du:
  - Bi egun balioduneko epean abstenitzea.
  - Ez onartzea informazioaren baliozkotasuna eta hierarkian gorago dagoen pertsonaren aurrean alegazioak aurkeztea, beste DACI batekin batera (BERRETSI).

Kasu horretan, bai eragiketaren arduradunak, bai hierarkian gorago dagoen pertsonak informazio gehigarria eskatu eta bila dezakete agertu den arriskuari buruz (bai tresna informatikotik, baita egokiak irizitako kanpo edo barneko organoetatik ere).

Informazio hori guztia ikusita, hierarkian gorago dagoen pertsonak aukeran izango du, behar bezala arrazoituta, erabakia hartu duen pertsonaren parte-hartzea onartzea edo, aldiz, abstenitzeko agintzea. Bandera gorriak eragindako erabakitzailearen egoera argitzen ez den bitartean, ezingo da jarraitu prozedurarekin, eta, beraz, etenda geratuko da prozedura.

Ukituriko erabakitzailea abstenitzen bada, eragiketaren arduradunak ordeztuko duen pertsonarekin aztertuko du interes gatazkaren arriskua.

iii. Bandera beltz bat edo batzuk hauteman dira.

Hori gertatzen da ez denean aurkitzen pertsona juridikoaren benetako titulartasunari buruzko informaziorik, eta, ondorioz, ezin denean arriskuaren azterketa egin.

Egoera horrek ez dakar prozedura automatikoki etetea.

Kasu horretan, eragiketaren arduradunak benetako titulartasunari buruzko informazioa eskatuko dio pertsona/erakunde eskatzaileari. Pertsona/erakunde eskatzaileak gehienez ere bost egun balioduneko epean aurkeztu beharko du informazioa, eskatu zitzaionetik zenbatzen hasita, eta epe horretan ez badu aurkezten, baztertzeko arrazoia izango da. Hala, ezinbestekoa izango da aurreikuspen hori dirulaguntza erregulatzeko araudian sartzea.

Benetako titulartasunari buruzko informazioa jaso ondoren, eragiketaren arduradunak beste kontrol bat egingo du *ex ante*, benetako titularrei buruzko datuak sartuta.

#### **4. Balizko interes gatazkei aurre egiteko neurriak**

Enplegatu publiko orok (batez ere ebaluazio batzordeetako kideek) edo kargu publikodun orok (dirulaguntza emateko eskumena duen organoak) prozedura honi jarraitu beharko diote baldin eta dirulaguntzak emateko prozedura batean parte hartzen badute (batez ere pertsona/erakunde eskatzaileen nortasuna zein den jakin ondoren) eta haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar lezakeen interesen bat agertzen bada:

- a) Erakundearen Etika Batzordeari kontsulta egitea.
- b) Balizko interes gatazkaren egoeraren berri ematea hierarkian gorago dagoen pertsonari, eta hark idatziz baieztatuko du gatazka hori ageri ala ez, Batzordeak gomendatutakoaren arabera. Interes gatazka bat ageri dela irizten zaionean, izendapenak egiteko eskumena duen agintariak bereziki zainduko du pertsona horrek bertan behera uzten duela gai horrekin loturiko jarduera oro. Era berean, beste edozein neurri gehigarri hartu ahal izango du, aplikatzekoa den zuzenbidearekin bat etorriz.
- c) Zorrotz aplikatzea dagokion barne araudia (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa), bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua, errekusatzeari buruzkoa, eta Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua.

## **Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren bitarteko propioen enkarguetan, kudeaketa mandatueta eta hitzarmenetan interes gatazken arriskua kontrolatzeko prozedura bat aztertzea eta ezartzea**

Jarraibide hauek bereziki eginak dira Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) finantzatutako funtsekin egindako bitarteko propioen enkarguetan, kudeaketa mandatueta eta hitzarmenetan interes gatazkek prebenitzeko jarraitu beharreko jarraibideak argitzeko eta bateratzeko.

Ondorio horietarako, hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera. Hitzarmenek ezingo dute xedetzat hartu kontratuen berezko prestazioak. Xede hori hartuz gero, haien izaera eta araubide juridikoa sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusita dagoenari lotu beharko zaizkio (40/2015 Legearen 47. artikulua).

### **1. Aldez aurreko argibideak interes gatazken kontzeptuari buruz**

Lehenik eta behin, interes gatazkei buruzko zenbait alderdi argitu behar dira.

#### **1.1. Interes gatazken kontzeptua:**

Ildo horretan, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza arauari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Finantza Erregelamenduak (EB, Euratom) ezartzen duenez, interes gatazkatzat hartuko da, baldin eta aurrekontua gauzatzeko zereginean —zuzenean, zeharka eta modu partekatuan— eta kudeaketan —prestaketa egintzetan, auditorietan edo kontrolean barne— parte hartzen duten finantza eragileek eta gainerako pertsonak beren eginkizunen erabilera inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute, arrazoi familiarak, afektiboak, kideatasun politiko edo nazionalakoak edo interes ekonomikokoak direla eta, edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako beste edozein arrazoirengatik.

Bestalde, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 53.5 artikuluan adierazten duenez, enplegatu publikoak “Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo dira eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai”.

#### **1.2. Hauek dira interes gatazkaren batean inplikaturik egon daitezkeen eragileak:**

- a) Kudeaketa, kontrol eta ordainketa lanak egiten dituzten enplegatu publikoak eta eginkizun horietakoren bat eskuordetu zaien beste agente batzuk.
- b) Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratatistak, baldin eta haien jarduerak funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde jardun badezakete — baina Europar Batasunaren finantza interesen aurka—, interes gatazkaren baten esparruan.

### 1.3. Interes gatazka zenbait eratakoa izan daiteke:

- a) Agerikoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek arriskuan jar dezakete haren eginkizunak edo betebeharrak objektiboki betetzea, baina, azkenean, ez dago lotura identifikagarri eta indibidualik pertsonaren portaeraren, jokabidearen edo harremanen alderdi zehatzekin (edo ez du alderdi horietan eraginik).
- b) Balizkoa: enplegatu publiko edo onuradun baten interes pribatuek interes gatazka sor dezakete, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar izanez gero.
- c) Benetakoa: enplegatu publiko baten betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen arteko gatazka, edo enplegatu publiko baten interes pertsonalek eragin bidegabea izatea bere betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan. Onuradun baten kasuan, gatazka sortuko litzateke laguntza funtsak eskatu zituenean hartutako betebeharretan eragin desegokia izan badezakete bere interes pribatuek.

## **2. Interes gatazkak aztertzeko kasuak eta inguruabarrak**

### 2.1. GFAREN zuzentasun sistema

Gipuzkoako Foru Aldundiak Jokabide Kode batzuek osatutako zuzentasun sistema bat du, besteak beste, [Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren kodea](#) eta [Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide egokien kodea](#), zeinetan ezartzen baita foru enplegatu publikoek eta kargu publikoek objektibotasunez jardun beharko dutela beren jardueran publikoetan, herritarren interes orokorrak defendatzeko. Beren jardunean, saihestu egingo dituzte halakoen bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko zehatzei mesede tratua edo zuzeneko zein zeharkako onura sor dezakeen jardueran batean arrazoitu gabeko edo objektibatu gabeko moduan eragina duten edo eragiteko susmoa edo itxura eman dezaketen praktika eta jardun guztiak. Jarduera objektibo horrek gidatuko du enplegatuen jardueran profesionala, bereziki, sarrera, sustapen eta lanpostuen hornikuntza, kontratazio publikoa, dirulaguntzen izapidetzea edo publizitate eta konkurrentzia askeko printzipioak legez bete behar direnean, eta ezinbestekoa izango dute inpartzialtasuna babestea beren jardun profesionalean.

### 2.2. Europar Batasuneko finantza interesak babestea

Batasuneko legediak hainbat xedapen jasotzen ditu horri buruz. Zehazki, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak 310. eta 325. artikuluetan ezartzen duenez, Batasunaren aurrekontua finantza kudeaketa onaren printzipioaren arabera egikaritu behar da, eta estatu kideek, EBrekin batera, aurre egin behar diete iruzurrari eta EBren finantza interesari kalte egiten dien legez kanpoko beste ezein jarduerari. Gainera, horri buruzko neurriak hartu behar dituztela ezartzen du. Bestalde, 2018ko Finantza Erregelamenduak ere jasotzen ditu lehen aipatutako bi alderdi horiek. Gainera, iruzurra prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jazartzeko neurriak hartzea azpimarratzen du, baita interes gatazkak prebenitzeko ere.

Gainera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema konfiguratzeko duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak xedatzen duenez,

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren neurriak egikaritzen parte hartzen duen erakunde erabakitzailerik edo betearazle orok, besteak beste, Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (aurrerantzean, DACI) bete beharko dute. Era berean, 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 112. xedapen gehigarriak interes gatazken arriskuaren azterketa sistematikoa eta automatizatua egiteko arauak ezartzen ditu. Xedapen horretan aurreikusitakoa aplikatuz, HPF/55/2023 Agindua eman zen, zeinean ezartzen baita aipatutako azterketa egingo dela zenbait pertsonaren kasuan. Hala ere, kontratuak esleitzeko eta dirulaguntzak emateko prozeduretan bakarrik egingo da azterketa.

### 2.3. Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenen (DACI) ereduak

Bitarteko propioen enkarguei, kudeaketa mandatuari eta hitzarmenei dagokienez, langileek eta kargu publikodunek DACI OROKORRA eredu aurkeztuko dute.

MINERVA prozedura ez dago aurreikusita horrelako tresna juridikoetarako.

Interes gatazkarik ezaren adierazpenak jasotzen dituzten dokumentuak, bai eta ager daitezkeen interes gatazka jasotzen dituztenak ere, espedientean sartu beharko dira, auditoretza pista egokia gordetzeko.

### 3. Prozedurak

DACIa sinatu beharko da Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoetik eta EGEFetik datozen Europako funtsak lortzen diren kasuetarako.

Kasu horretan, hauek sinatuko dute DACI OROKORRA:

#### a) Espedientea proposatu edo bultzatu duen unitateko langile titularrek:

- Justifikazio memoria sinatzen duten edo enkargua, kudeaketa mandatu edo hitzarmena idazten duten pertsonak.

Noiz? Prozeduraren izapideak hasten direnean, adibidez, justifikazio memoria sinatzen denean.

#### b) Enkargua, kudeaketa mandatu edo hitzarmena sinatzen duten entitateetako langileak:

Noiz? Enkargua, mandatu edo hitzarmena sinatu aurretik.

#### c) Espedientea kudeatzen edo egikaritzen parte hartzen duten langileak:

Noiz? Dagokion prozeduran parte hartuko duela jakin bezain laster.

Enkargua, kudeaketa mandatu edo hitzarmena gauzatzean kontratuak edo dirulaguntza deialdiak egiten direnean, dagozkion DACIak formalizatuko dira.

### 4. Balizko interes gatazkei aurre egiteko neurriak.

Enplegatu publiko edo kargu publikodun orok, bitarteko propioko enkargu prozedura batean edo hitzarmen bat sinatzeko prozedura batean parte hartuz gero, prozedura honi jarraitu beharko dio baldin eta bere inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar lezakeen interesik badu:

- a) Erakundearen Etika Batzordeari kontsulta egitea.
- b) Balizko interes gatazkaren egoeraren berri ematea hierarkian gorago dagoen pertsonari, eta hark idatziz baieztatuko du gatazka hori ageri ala ez, Batzordeak gomendatutakoaren arabera. Interes gatazka bat ageri dela irizten zaionean, izendapenak egiteko eskumena duen agintariak bereziki zainduko du pertsona horrek bertan behera uzten duela gai horrekin loturiko jarduera oro. Era berean, beste edozein neurri gehigarri hartu ahal izango du, aplikatzekoa den zuzenbidearekin bat etorriz.
- c) Zorrotz aplikatzea dagokion barne araudia (estatukoa, autonomikoa edo tokikoa), bereziki, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikulua, errekusatzeari buruzkoa, eta Foru gobernantza publikoaren esparruko Gobernu Onari buruzko martxoaren 11ko 4/2019 Foru Araua.

### 3. eranskina: DACI ereduak

#### 1 EREDUA: DACI OROKORRA

##### ESPEDIENTEAREN DATUAK

Izena

Erreferentzia kodea

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte hartzen duenez, honako hau adierazten du:

**Lehenengo:** Konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Foru Administrazioaren **ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMA** osorik betetzeko, bai eta hortik aurrera onartutako **JOKABIDE KODEAK** ere; honako helbide elektronikoko honetan jasota daude:

[Jokabide kodeak - Gipuzkoa](#)

**Bigarren:** Hurrengoak jakitea:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza erregelamendua) 61.3 artikulua (Interes gatazka) ezartzen duenez, interes gatazka egongo da funtzioen egikaritze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako, afektuzko, kidesun politiko edo nazionalako, interes ekonomikoko edo interes pertsonaleko edozein arrazoiengatik.

2. Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua (Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes gatazken prebentzioa) xedea da lehiaren edozein distortsio saihestea, prozeduraren gardentasuna bermatzea eta hautagai eta lizitatuak guztiei tratu berdintasuna bermatzea.

3. Urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan xedatzen duenez, prozeduran esku hartetik abstenitu beharko dira administrazioetako agintari edo langileak hurrengo apartatuan aipaturiko egoeretakoren batean daudenean; honako hauek dira abstenitzeko arrazoiak:

- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebaspenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen

bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

- b) Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
- c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
- e) Gaiian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

**Hirugarren:** Ez dagoela EBko Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitakoen artean interes gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez dauka Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan jasotako abstentzio kausarik, lizitazio/emakida prozedurari eragin diezaiokeenik.

**Laugarren:** Konpromisoa hartzen duela geroratu gabe jakinarazteko kontratazio organoari/ebaluazio batzordeari egoera hori eragiten duen edo eragin dezakeen edozein interes gatazka edo abstentzio kausa.

**Bosgarren:** Badakiela baldin eta interes gatazkarik ez dagoela adierazten badu eta hori faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina, administrazio eta justizia ondorioak izango dituela.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NAN)

## 2 EREDUA: DACI MINERVA

### ESPEDIENTEAREN DATUAK

Izena

Erreferentzia kodea

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen duenak, espedientea prestatzeko eta izapidetzeko prozesuan parte hartzen duenez, honako hau adierazten du:

**Lehenengo:** Hurrengoak jakitea:

